

DIRU ITURRIAK

Fundak ekoizteko egin beharreko inbertsioa, hauen materialean oinarrituko da batik bat. Materiala enpresa hornitzaile bati eskatu beharko diogu eta hauek materialaren kostua eta honen garraioa kobratuko digute. Hasieran izango dugun beste gastuetako bat, D imprimagailuena izango da. Kalitatezko imprimagailuak nahi baditugu, gutxienez 3000 euroko inbertsio egin beharko dugu imprimagailu bakoitzeko.

Diru sarrerak, funden salmentatik irtengo dira. hala eta guztiz ere, hasierako gastuei aurre egiteko, bankuan 20000 euroko mailegu bat eskatuko dugu. Funden salmenten ordainketa bakarrekoa eta momentukoa izango da, beraz diru sarrera funden salmenten araberakoa izango da. Ordainketak internetez ere egingo direnez zuzenean gure banku kontu korrontera (572) joango dira.

Salmenta web-orriaren bitartez egingo litzateke, bertan sistema informatikoen bidez erosleak bere produktuaren diseinua, kolorea eta materialaren arabera, prezio desberdin bat ordaindu beharko luke.

Salmenta guztiak web-orriaren bitartez egingo lirateke, gaur egun aukerarik zuhurrena iruditzen zaigulako.

Horrez gain, enpresa haundientzat diseinu pertsonalizatuagoak egingo genituzke. Beste enpresa batek adibidez, fundetan bateriak sartzea pentxatu dutenez, gure funden eskaria egin ahal izango lukete beraien bateriak bertan sartzeko.



